## 4. jarduera: **Zuzendari idealaren erretratu-robota**

### Jarduera: Hautagai ideala hautatzeko irizpideak definitzea (aukeratzea, izendatzea).

**Xedea:** Administrazioan edota beste hezkuntza-erakunde batzuetan hautespen-prozesuak zein suposiziopetan egiten diren hausnarrarazi nahi dizu ariketak. Horrela, **mahaiaren bestaldean kokatu nahi zaitu, eta hautatzeko prozesuan erantzukizuna eman nahi dizu**. Jarduera horren bitartez ikastetxe bateko zuzendariaren profila berreraikitzeko aukera dago.

**Testuingurua:** Hautespen-batzordeak, izendapen-organoak edo eskola-kontseiluak aukera izango du zuzendariaren hautaketa gidatuko duten irizpideak ezartzeko.

**Materialak:** Jardun profesionalerako irizpideak biltzen dituzten orriak.(ikus III. tresna)

**Prozedura:**

1. **Taldean.** Ikastetxeko zuzendariaren lanpostua bete nahi da. Prestatu esleitzen zaizkion zereginen eta erantzukizunen zerrenda. **(ikus 1. eta 2. jarduerak)**
2. **Banaka.** Irakur ezazu zuzendaritza aukeratzeko erabil daitezkeen jardun profesionaleko irizpideen zerrenda. Irizpideen berri ematen duten portaera-motak labur-labur definitzen dira –kategorien arabera taldekatuta daude–.
3. **Taldean.** Jar zaitezte ados lanpostua betetzeko irizpiderik agerikoenen inguruan. Aukeratu dituzun irizpideak adierazteko lekua duzu orri-barren bakoitzean. Saia zaitez atal bakoitzeko 3 irizpide baino gehiago ez aukeratzen. Orrialde bakoitzeko irizpideen gainean adostasuna lortzen duzuenean, hautespen-prozesu horretan erabili beharreko behin betiko zerrenda egin dezakezue. (III. eta IV. tresnak).